

KONPROMISOA

1. Irakasleak ikasturte hasieran eta ebaluazio bakoitzaren hasieran, ikasturteko eta dagokion ebaluazioko programazioen azalpenak emango dizkie ikasleei.
2. Programazioek elementu hauek izango dituzte:
 - 2.1. Zeharkako konpetentziak
 - 2.2. Helburuak
 - 2.3. Ebaluazio irizpideak
 - 2.4. Edukien sekuentzia
 - 2.5. Metodologia
 - 2.6. Ebaluazio tresnak
 - 2.7. Kalifikazio irizpideak
 - 2.8. Ebaluazioaren ondorioak
 - 2.9. Oharrak
3. Programatutako gela jarduerak emango ditugu.
4. Gai bera irakasle desberdinen artean ematen denean mintegi mailako koordinazio estuan arituko gara: programazioa, baliabideak, ebaluazio irizpide, azterketak, indartze neurriak, errehabilitazio irizpide... berdinak edo oso antzekoak erabiliko ditugu.
5. Kalifikazioan eraginik izan dezaketen ariketa edo azterketen azalpenak emango dizkie irakasleak ikasleei, ebaluazio eta kalifikazio irizpideak azalduz eta hauen arabera kalifikazioak argituz.
6. Ikasle guztiek egin ditzaketen erreklamazio guztiei, bakarka zein taldeka, emango zaie erantzuna.
7. Irakasle bakoitzak ebaluazio bakoitza bukatu ondoren ikasle taldearekin ebaluazio aldiaren ebaluazioa egingo du, ikasleei beren iradokizunak, hobekuntza proposamenak, bakarka zein taldeka, azaltzeko bideak emanaz.
8. Ebaluazio bakoitza bukatu ondoren zuzendaritzak ikasle ordezkariekin bilera egingo du, aurreko puntuko gai beroriek aztertuz.
9. Ebaluazio bakoitza bukatu ondoren zuzendaritza batzordearekin bilduko da, ebaluazioaren balorazioa azaltzeko eta gurasoen iradokizunak eta hobekuntza proposamenak bideratzeko.
10. Tutoreak ebaluazio bakoitza bukatu ondoren bere tutoretzako taldearekin ebaluazio aldiaren ebaluazioa egingo du, ikasleei beren iradokizunak, hobekuntza proposamenak, ahoz zein idatziz, bakarka zein taldeka, azaltzeko bideak emanaz eta erraztuz eta hauek guztiak dagokionari, irakasleari, mintegiari, ikasketa buruari... bideratuko dizkio.
11. Tutoreak, ikaslearen bilakaerak jarraipen egoki bat izan dezan, ikaslea bakarka elkarrizketatuko du eta gurasoekin harreman pertsonal edo telefonikoak izango ditu behar diren guztietan. Tutorea laguntza gelako irakasleekin ere koordinatuko da.
12. Mintegi bakoitzari dagozkion irakasgai edo modulu guztien ebaluaziokako ebaluazioa egingo da, honako alderdiok ebaluatuz:
 - 12.1. Emandako Unitate Didaktiko eta bere egokitzapenak.
 - 12.2. Programazioaren jarraipena (ohikoak eta egokitzapenak)
 - 12.3. Gai bera ematen duten mintegi kideen koordinazioa.
 - 12.4. Maila edo gai desberdineko mintegi kideen koordinazioa.
 - 12.5. Beste mintegiekiko koordinazioa.
13. Mintegiko irakasgai edo modulu etako emaitza akademikoen ebaluazioa, aurreko ikasturteko edo ebaluazioko emaitzekin alderatuz.
14. Mintegi buruak hauen guztien berri ikasketa buruari emango dio.